

B EREDUA

- 1. ESKEA EGITEKO ESKUBIDEA:**
 - a. Konstituzioaren 30. artikuluan dago jasota, eta espainiar guztien onurarako dago aitortuta.
 - b. Banaka erabili ahal izango da.
 - c. Idatziz erabili ahal izango da, paper tinbratua erabilia.
 - d. Ezin izango da taldean erabili.

- 2. KONSTITUZIOAN KONTSUMITZAILE ETA ERABILITZAILEEN ESKUBIDEAK BABESTEARI BURUZ EZARRITA DAGOENAREN ARABERA, LEGEAK ARAUTUKO DU:**
 - a. Barne merkataritza.
 - b. Kanpo merkataritza.
 - c. Zerbitzu publikoak adierazteko araubidea.
 - d. Kexak eta erreklamazioak adierazteko araubidea.

- 3. ZER SUSTATU BEHAR DUTE BOTERE PUBLIKOEK, 1978KO KONSTITUZIOAN EZARRITA DAGOENAREN ARABERA?**
 - a. Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna gizarteko kide guztientzat izateko inguruabar zehatzak.
 - b. Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna Konstituzioa eta legeak errespetatuz herritarrei emateko inguruabar zehatzak.
 - c. Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna ahalik eta handienak izateko inguruabar zehatzak.
 - d. Gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izateko inguruabar zehatzak.

- 4. NOLA DU IZENA LEGEZ KONTRA ATXILOTUTAKO PERTSONA ORO LEHENBAILEHEN AGINTARITZA JUDIZIALAREN ESKU JARTZEKO PROZEDURAK, ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN AIPATZEN DENAK?**
 - a. Iustitia humanum est.
 - b. Aurreneurritzko atxilotze.
 - c. Extra corpus carceris.
 - d. Habeas Corpus.

- 5. BAIEZTAPEN HAUETAKO BAT OKERRA DA. ZEIN?**
 - a. Konstituzioak onartzen du ezkontza desegin ahal izango dela.
 - b. Konstituzioak ezartzen du gizonek eta emakumeek berdintasun juridiko osoz ezkontzeko eskubidea dutela.
 - c. Konstituzioak Legearen esku uzten du ezkontideen eskubideen eta betebeharren zehaztapena.
 - d. Konstituzioak ezartzen duenez, gizonek eta emakumeek adin nagusitasunera heltzean lortzen dituzte ezkontzeko adina eta gaitasuna.

B EREDUA

- 6. NOREN AURREAN AURKEZTEN DA BABES ERREKURTSOA?**
- Edozein epaitegi edo auzitegiaren aurrean.
 - Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurrean.
 - Konstituzio Auzitegiaren aurrean.
 - Auzitegi Gorenaren aurrean.
- 7. "ADMINISTRAZIO-HERRIKIDETASUNA" KONTZEPTUAK, EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 7. ARTIKULUAN JASOAK, HAU ESAN NAHI DU:**
- Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen foru legediaren mende egotea.
 - Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legedi zibilaren mende egotea.
 - Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritakoa izatea.
 - Estatuko Lege Orokorraren mendea egotea.
- 8. EUSKAL BOTERE PUBLIKOEK, BERAIEEN ESKUMENENKO EREMUAN:**
- Herritar guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte har dezaten erraztuko dute.
 - Erabateko enplegua sortzera bideratutako politika bat sustatuko dute.
 - Enpleguaren gehikuntza eta zerga egonkortasuna sustatzera bideratutako neurriak hartuko dituzte.
 - Erabateko enplegua eta aurrekontu egonkortasuna sustatzera bideratutako neurriak hartuko dituzte.
- 9. AUTONOMIA ESTATUTUAK EZ DU LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMEN ESKLUSIBOTZAT EZARTZEN:**
- Udaletako hauteskunde araubidea.
 - Foru aldundietako hauteskunde araubidea.
 - Probintzia eta udaletako ondasunen araubidea.
 - Probintzia mugak gainditzen ez dituzten udalerriaz gaindiko lurralde mugaketak.
- 10. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 1. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ZEIN DA EDO DIRA EUSKAL HERRIAREN OINARRIZKO ERAKUNDE ARAUAK?**
- Konstituzioa.
 - Estatutua.
 - Lurralde Historikoen Legea eta Hizkuntza Normalizaziorako Oinarrizko Legea.
 - Eusko Legebiltzarreko Legea eta Lurralde Antolamendurako Legea.
- 11. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 9. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, NORK ZAINDU ETA BERMATUKO DU HERRITARREN OINARRIZKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN ERABILERA EGOKIA?**
- Lehendakariak.
 - Euskal botere publikoek.
 - Eusko Legebiltzarrak.
 - Arartekoak.

B EREDUA**12. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, LEGE BIDEZ GARATU ETA BETEARAZTEKO ESKUMENEN KASUAN:**

- a. Estatuari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Autonomia Erkidegoari, berriz, horiek lege bidez garatzea.
- b. Estatuari dagokio oinarrizko arauak ezartzea eta Lurralde Historikoari, berriz, horiek lege bidez garatu eta betearaztea.
- c. Estatuari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Eusko Jaurlaritzari, berriz, horiek arau bidez garatzea.
- d. Autonomia Erkidegoari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Lurralde Historikoei, berriz, horiek arau bidez garatzea.

13. ESTATUAREN LURRALDE ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO ERAKUNDEA DA:

- a. Autonomia Erkidegoa.
- b. Eskualdea.
- c. Probintzia.
- d. Udalerria.

14. AURREKONTUAK EGITEKO, KONTABILITATEA EROATEKO, DIRUZAINTZAKO ETA DIRUA BILTZEKO EGINKIZUNAK DAUZKATEN ORGANOETAKO TITULARREK ESTATU OSORAKO GAIKUNTZA DUTEN FUNTZIONARIO-KIDEGOETAKOAK IZAN BEHAR DUTE, SALBU ETA EGINKIZUN HAUETARAKO:

- a. Diru-bilketa.
- b. Diruzaintza.
- c. Aurrekontuak egitea.
- d. Kontabilitatea eta diru-bilketa.

15. TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 5.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRI GUZTIETAN DAGO, ETA BIZTANLE GUTXIAGOKOETAN:

- a. Konstituzioak hala xedatzen badu.
- b. Autonomia Estatutuak hala xedatzen badu.
- c. Bertako Erregelamendu Organikoan hala xedatuta badago edo Udalbatzak hala erabakitzen badu.
- d. Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeak hala xedatzen badu.

16. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN 121.3. ARTIKULUAREN ARABERA, TITULU HORRETAN AURREIKUSITAKO ARAUBIDEA APLIKA DAKIEKEEN UDALERRIEK:

- a. Ez dute jarraituko gerora ere araubide bera izaten, bertako biztanleriaren kopuru ofiziala Lege honetan ezarritako mugatik behera jaisten bada.
- b. Udaleko osoko bilkuran hala adostuz gero bakarrik jarraituko dute araubide bera izaten.
- c. Araubide bera izaten jarraituko dute, gerora bertako biztanleriaren kopuru ofiziala Lege honetan ezarritako mugatik behera jaitsi arren.
- d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

B EREDUA**17. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN LEGEAREN ARABERA, 5.000 BIZTANLETIK GORAKO ETA 20.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIETAN, ZERBITZU HAUEK ERE ESKAINI BEHARKO DIRA:**

- a. Argiteria publikoa, hilerria, hondakinen bilketa eta kale-garbiketa.
- b. Parke publikoa, liburutegi publikoa eta hondakinen tratamendua.
- c. Argiteria publikoa, hilerria, liburutegia eta kale-garbiketa.
- d. Argiteria publikoa, parke publikoa, liburutegi publikoa eta kale-garbiketa.

18. TRIBUTU IZAERAKO BALIABIDE PROPIOAK ZEHAZTEKO ESKUMENA HONI DAGOKIO:

- a. Alkateari.
- b. Zinegotzi ordezkariari.
- c. Udalbatzari.
- d. Tokiko Gobernu Batzarrari.

19. UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BILBOKO UDALEKO UDALBATZAK ONDORENGOEN EKIMENEZ HARTUKO DITU ERABAKIAK:

- a. Alkatea, Bozeramaileen Batzordea, zinegotziak eta talde politikoak.
- b. Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak, gainerako zinegotziak, talde politikoak eta herri ekimena.
- c. Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak eta gainerako zinegotziak.
- d. Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak, gainerako zinegotziak eta herri ekimena.

20. ARAU NAGUSI GISA, BILBOKO UDALEKO UDALBATZAK HONELA HARTUKO DITU ERABAKIAK:

- a. Bertaratutako kideen gehiengo soilaren bidez.
- b. Gehiengo osoaren bidez.
- c. Gehiengo kualifikatuaren bidez.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

21. BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BILBOKO UDALEKO FONDOAK, BALOREAK ETA EFEKTUAK ERABILI ETA ZAIINTZEKO ETA UDALAREN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO ESKUMENAK:

- a. Aurrekontua kudeatzeko organoarenak dira.
- b. Zerga kudeaketarako organoarenak dira.
- c. Kontabilitateko organoarenak dira.
- d. Diruzaintza organoarenak dira.

B EREDUA**22. BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ALDI BEREAN SAILEKO ZUZENDARITZAK ANTOLATU AHAL IZANGO DIRA:**

- a. Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sekzioetan, negoziatuetan eta laguntza unitateetan.
- b. Zuzendariordetzetan, sailataletan, sekzioetan eta beheragoko mailako edo antzeko beste unitate batzuetan.
- c. Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sailataletan, sekzioetan eta kudeaketa unitateetan.
- d. Zuzendariordetzetan, zerbitzuetan, sailataletan eta negoziatuetan.

23. BILBOKO AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA ARAUTZEN DUEN ARAUDIAREN 2.4. ARTIKULUAREN ARABERA, BILBOKO AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAREN EBAZPENEK:

- a. Administrazio bidea amaitzen dute, eta haien aurka gorako errekurtsua soilik aurkeztu ahalko da.
- b. Administrazio bidea amaitzen dute, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua soilik aurkeztu ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean azaldutako moduan.
- c. Ez dute administrazio bidea amaitzen, eta haien aurka gorako errekurtsua aurkeztu ahalko da.
- d. Ez dute administrazio bidea amaitzen.

24. BILBOKO HIRIKO BARRUTIETAKO ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIAREN ARABERA, BILBO:

- a. Sei barrutitan banatuta dago.
- b. Zazpi barrutitan banatuta dago.
- c. Zortzi barrutitan banatuta dago.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

25. BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN 19. ARTIKULUAREN ARABERA, ZINEGOTZIEK ESKUBIDEA DUTE:

- a. Espediente bateko agiri guztien kopiak eskuratzeko, horrekin udal zerbitzuaren ohiko funtzionamendua aldatzen badute ere.
- b. Espedienteetako agirien kopiak eskuratzeko, eta ez dira inolaz ere kontuan hartuko kopiak eskatzen diren udal eremuko ohiko funtzionamendua aldatu dezaketen eskaera bereizi gabeak.
- c. Udalbatzan parte hartu ahal izateko beharrezko agirien kopiak eskuratzeko.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

B EREDUA**26. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, PROZEDURAREN ANTOLAMENDUARI DAGOKIONEZ, ARAU BATEN ONDORIOZ ESPEDIENTE ELEKTRONIKO BAT BIDALI BEHARRA DAGOENEAN:**

- a. Hura izapidetu duen langile publikoaren ezaugarrien eta bitarteko erabilgarrien arabera bidaliko da.
- b. Ez da beharrezkoa izango aurkibide batekin batera bidaltzea.
- c. Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean eta Elkarreragingarritasunari buruzko Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera bidaliko da, osorik, orrialdekaturik, autentifikaturik eta dituen dokumentu guztien aurkibide orobat autentifikatu batez lagundurik.
- d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

27. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO GUZTIGUZTIEN ERREGISTRO ELEKTRONIKOEK FUNTSEZKO EZAUGARRI BAT BETE BEHAR DUTE:

- a. Teknikoki elkar trukatzeko modukoak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta interkonexioa bermatzeko, baita erregistro-idazpenak eta edozein erregistrotan aurkeztutako agiriak telematikoki igortzea bermatzeko ere.
- b. Osotara elkarreragingarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa bermatzeko, eta orobat erregistro-idazpenen eta edozein erregistrotan aurkezten diren dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko.
- c. Osotara elkarreragingarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa dena delakoa izan arren.
- d. Normalizatuta egon behar dira.

28. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, HAUETAKO ZEIN EZ DA INTERESDUN ADMINISTRAZIO PROZEDURAN?

- a. Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.
- b. Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
- c. Prozedura haiek ez hasi arren, hartan emango den aginduak uki ditzakeen eskubideak dituztenak, eta aginte eskudunaren aurrean agertuko direnak, soilik modu pertsonalean.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

B EREDUA**29. BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIAK AKTAN JASO BEHARKO DIRA:**

- a. Eta zinegotzi idazkariak akta hori egin eta sinatuko du.
- b. Eta Gobernu Batzordearen Bulegoko titularrak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.
- c. Eta Aholkularitza Juridikoko titularrak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.
- d. Udalbatzako idazkari nagusiak akta hori egin, argitaratu eta sinatuko du.

30. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 33. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN ERREKURTSO AURKEZTU AHAL IZANGO DA PROZEDURA PRESAZ IZAPIDETZEKO DELA DEKLARATZEN DUEN ERABAKIAREN KONTRA?

- a. Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Akordioa agindutako organoaren aurrean.
- b. Gora jotzeko errekurtsoa, hierarkian goragoko mailako organo agindu emailearen aurrean.
- c. Ezin da errekurtsorik aurkeztu, prozedura amaitzen duen ebazpenaren aurka jar daitekeenari kalterik egin gabe.
- d. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

31. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 77. ARTIKULUAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO PROZEDURAREN INSTRUKZIO-EGILEAK FROGALDI BAT HASTEAN ERABAKITZEN BADU, EGOKI DERITZON FROGA GUZTIAK EGIN AHAL IZATEKO, EPEA EZINGO DA IZAN:

- a. Hogei egun baino gehiagokoa eta hamar baino gutxiagokoa.
- b. Hogeita hamar egun baino gehiagokoa eta hamar baino gutxiagokoa.
- c. Bi hilabete baino gehiagokoa eta hilabete baino gutxiagokoa.
- d. Hiru hilabete baino gehiagokoa eta hamabost egun baino gutxiagokoa.

32. BIZTANLE KOPURU HANDIKO UDALERRIAK ANTOLATZEKO ARAUBIDEARI BURUZKO X. TITULUAN AURREIKUSITA DAGOEN HIRIEN BATZARRA OSATUKO DUTE:

- a. Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta TokiAraubidearen Oinarrien Legearen X. titularen aplikazio eremuan sartzen diren udalerrietako alkateek.
- b. Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek, Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioak eta probintzia hiriburu nagusietako udalerrietako alkateek.
- c. Autonomia erkidegoek, Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioak eta biztanle kopuru handiko udalerrietako alkateek.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

33. BILBOKO UDALBATZAREN ARAUDIAREN ARABERA, TALDE POLITIKO BAT ERATZEKO ETA ATXIKITZEKO, BEHARREZKOA DA:

- a. Gutxienez bi pertsona izatea.
- b. Gutxienez lau pertsona izatea.
- c. Gutxienez sei pertsona izatea.
- d. Aurreko erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

B EREDUA**34. BILBOKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BOZERAMAILEEN BATZORDEA DA:**

- a. Udalbatzako eztabaida-organoa.
- b. Udalbatzako eta Tokiko Gobernu Batzordeko kontsulta-organoa.
- c. Udalbatzako presidentearen organo aholku-emailea.
- d. Udalbatzako kudeaketa-organoa

35. TOKI ARAUBIDEAREN LEGEAN EZARRITAKOAREN ARABERA (X. TITULUA. BIZTANLE KOPURU HANDIKO UDALERRIEN ANTOLAKUNTZAKO ARAUBIDEA), BILBOKO UDALEKO GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA HONAKO HONEK ARAUTZEN DU:

- a. Udalbatzaren Araudi Organikoak.
- b. Bilboko Hiri Kontseiluaren Udal Araudi Organikoak.
- c. Bilboko Udaleko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Araudi Organikoak.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

36. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEA ARAUTZEN DUEN 39/2015 LEGEAREN 27. ARTIKULUAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EGINDAKO KOPIA AUTENTIKOEN:

- a. Soilik ondorio administratiboak izango dituzte.
- b. Ez dute inolako ondorio administratiborik izango.
- c. Soilik administrazio horretan izango dute baliozkotasuna.
- d. Ez dute izango baliozkotasunik gainerako administrazioetan.

37. ADMINISTRAZIO-EGINTZA BAT EMAN ZENETIK JAKINARAZTEKO EPEA HAU IZANGO DA:

- a. Hamar egun.
- b. Hamabost egun.
- c. Hogei egun.
- d. Hilabete.

38. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN 14. ARTIKULUAREN ARABERA, BAI EZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?

- a. Herri-agintek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.
- b. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuko administrazioari gainerako lanpostuetara sartzeko egin daitezkeen hautaprobetan hizkuntza ofizialen ezagupen-maila hartuko da kontutan merezimendu gisa, besteak beste.
- c. Herri-agintek finkatuko dute zein lanpostutarako izango den derrigorrezko bi hizkuntzak jakitea.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

B EREDUA**39. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA (10/1982 LEGEA), HELDUENTZAKO EUSKARAREN IRAKASKUNTZA ETA EUSKALDUNEN ALFABETATZEA SUSTATUKO DITU EUSKO JAURLARITZAK, ETA, HORRETARAKO:**

- a. Merkataritzako sozietate publiko bat sortuko du.
- b. Enpresa-entitate publiko bat sortuko du.
- c. Ente publiko bat sortuko du.
- d. Aurreko erantzunen artean bat ere ez da zuzena.

40. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZU GUZTIETAN INPRIMAKIAK, IRAGARKIAK ETA HERRITARRENTZAKO MEZUAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ EGINGO DIRA:

- a. Euskal Herritik abiatzen diren garraio publikoko zerbitzuak badira.
- b. Euskal Herritik abiatzen badira eta bertara badatoz.
- c. Estatutik abiatzen badira eta Euskal Herrira badatoz.
- d. Euskal Herrira badatoz.

41. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEKO ZIOEN AZALPENAREN ARABERA, EUSKARA GIZAKIAK BETEBETEAN TXERTATZEKO TRESNA DA:

- a. Nazioarteko Erkidegoan.
- b. Iberoamerikar Erkidegoan.
- c. Europar Batasunean.
- d. Euskal Autonomia Erkidegoan.

42. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, PERTSONA BATEK BAINO GEHIAGOK ESKU HARTZEN DUEN ESPEDIENTE EDO PROZEDURETAN HERRI-AGINTEEK ERABILIKO DUTE:

- a. Euskara erabiltzen duen pertsonak ezartzen duen hizkuntza.
- b. Gaztelania erabiltzen duen pertsonak ezartzen duen hizkuntza.
- c. Alde biek adostasunez erabaki dezaten hizkuntza.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

43. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, JAURLARITZAK EUSKARAREN ERABILERA BULTZATU ETA BABESTEKO NEURRIAK HARTUKO DITU ETA, NOLANAHI ERE, HONAKO HAUETAN HEDATU ETA BENETAN ERABILTZEA AHALBIDETUKO DU:

- a. Egunkari eta aldizkarietan.
- b. Irudiaren eta soinuaren grabazioetan.
- c. Irratian.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

44. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN XEDEA DA:

- a. Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea, lanaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko behar diren neurriak aplikatuz eta jarduerak gauzatzuz.
- b. Laneko istripuen estatistikak sustatu eta garatzea.
- c. Langileen segurtasuna garatzea, neurri zuzentzaileak eta zehatzaileak ezarriz.
- d. Printzipio orokorrak ezartzea, enpresariak arriskudun lanak kendu ditzaten.

B EREDUA

- 45. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEA EZARTZEN ZAIE:**
- Merkataritza-sozietateei, langilerik izan ez arren.
 - Ondarezko sozietateei, langilerik izan ez arren.
 - Kooperatiba-sozietateei, lan pertsonala egiten duten bazkideak badituzte.
 - Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.
- 46. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZEIN DA LANETIK ERATORRITAKO ARRISKUAK SAIHESTEKO EDO HORIEK MURRIZTEKO ENPRESAKO JARDUERA-FASE GUZTIETAN EZARRITAKO JARDUEREN ETA HARTUTAKO NEURRIEN MULTZOA:**
- Langileen prebisioa.
 - Prebentzioa.
 - Langileen babesia.
 - Lan-ekipamendua.
- 47. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LANAREN EDOZEIN EZAUGARRI, LANGILEAREN SEGURTASUN ZEIN OSASUNERAKO ARRISKUAK SORTZEKO ERAGIN NABARIA IZAN DEZAKEENA:**
- Babesteko arriskuen azterketa.
 - Lan-baldintza.
 - Laneko prebentzioa.
 - Lan-arriskua.
- 48. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ORGANO ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOA DA:**
- Lan-arriskuen Prebentziorako Institutua.
 - Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala.
 - Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala.
 - Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionala.
- 49. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, LANGILEAK LANAREN ONDORIOZ ARRISKU LARRI ETA HUR-HURREKOA DUTENEAN EDO IZAN DEZAKETENEAN, ENPRESABURUAK HURRENGO BETEBEHARRAK IZANGO DITU:**
- Ukitutako langile guztiak ahalik arinen informatzea, arrisku horren inguruan.
 - Neurri egokiak hartu eta jarraibide egokiak ematea, langileek euren jarduera geldiarazteko.
 - Egoki dena agintzea, langilea arrisku horren ondorioak saihesteko egoeran izan dadin.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 50. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA APLIKATZEN ZAIO:**
- Datu pertsonalen tratamendu guztiz automatizatuari.
 - Datu pertsonalen tratamendu, neurri batean, automatizatuari.
 - Fitxategi batean dauden datu pertsonalen tratamendu ez automatizatuari.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.

B EREDUA**51. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNARI JAKINARAZI EGIN BEHAR ZAIO ESKUBIDEA DUELA BERARI BURUZKO DATU PERTSONALAK IRISPIDEAN IZATEKO, ZUZENTZEKO EDO EZEREZTEKO, TRATAMENDUA MUGATZEKO EDO HAREN AURKA EGITEKO, EDO DATUOK TRANSFERITZEKO.**

- a. Tratamenduaren arduradunak jakinaraziko dio, datu pertsonalak lortzen diren unean.
- b. Tratamenduaren eragileak jakinaraziko dio, datuak lortu eta hurrengo 5 egunetan.
- c. Datuen babesaren alorreko kontrol-agintaritza eskudunak jakinaraziko dio, tratamenduaren eragileari zehapen bat jakinarazten zaionean, haren funtzio komertzialetan egindako arau-haustekak direla-eta.
- d. Tratamenduaren arduradunak jakinaraziko dio, soilik interesdunak eskatzen badu.

52. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAK ESKUBIDEA IZANGO DU BERARI BURUZKO DATU PERTSONALAK ATZERAPEN BIDEGABERIK GABE EZEREZTU DITZAN TRATAMENDUARDURADUNAK, ZEINA EZ BAITA BEHARTUTA EGONGO DATU PERTSONALAK ATZERAPEN BIDEGABERIK GABE EZEREZTERA, BALDINTZA HAUETAKO BAT GERTATZEN DENEAN:

- a. Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan.
- b. Interesdunak bertan behera uzten badu tratamenduaren oinarrian dagoen adostasuna, baina tratamenduak beste oinarri juridiko bat badu.
- c. Datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin bada.
- d. Datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako legebetebehar baten indarrez.

53. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI EDO ERAGILEARI APLIKATZEN ZAION BATASUNEKO EDO ESTATU KIDEETAKO ZUZENBIDEAK MUGAK JARRI AHAL IZANGO DIZKIO, LEGEGINTZAKO NEURRIEN BITARTEZ, 12. ARTIKULUTIK 22.ERA BITARTEAN ETA 34.EAN EZARRITAKO BETEBEHAR ETA ESKUBIDEEN IRISMENARI; BAITA 5. ARTIKULUAN EZARRITAKOENARI ERE, BERTAKO XEDAPENAK BAT DATOZEN NEURRIAN 12.ETIK 22.ERA BITARTEKO ARTIKULUETAN JASOTZEN DIREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREKIN, BETIERE, MUGA HORIEK OINARRIZKO ESKUBIDE ETA ASKATASUNEN MUINA ERRESPETATZEN BADUTE ETA NEURRIAK NAHITAEZKOAK ETA PROPORZIONALAK BALDIN BADIRA GIZARTE DEMOKRATIKO BATEAN HELBURU HAUEK BABESTEKO:

- a. Estatuaren segurtasuna.
- b. Defentsa.
- c. Segurtasun publikoa.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

B EREDUA**54. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOA EZ ZAIE APLIKATZEN:**

- a. Datuen babeserako 2016/679 (EB) Erregelamendu orokorrak araututako eremuko tratamenduei.
- b. Gai sailkatuen babesari buruzko araudien eraginpean dauden tratamenduei.
- c. Hildakoei buruzko datuen tratamenduei, kasu guztietan.
- d. 3/2018 Lege Organikoa kasu horietan guztietan aplikatzen da.

55. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ERAKUNDE HAUETAKO ZEINEK EZ DU IZAN BEHAR NAHITAEZ DATUEN BABESERAKO ORDEZKARIA?

- a. Elkargo profesionalek.
- b. Segurtasun pribatuko enpresek.
- c. Norberaren izenean jarduten duten osasun arloko profesionalek.
- d. Unibertsitate publikoek.

56. EUSKO LEGEBILTZARRAREN 4/2005 LEGEAREN ARABERA (OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZETARAKO LEGEA), EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA EUROPAR BATASUNAREN FUNTSEZKO PRINTZPIOETAKO BATEN MODUAN EZARRI ZEN, HONAKO HAU INDARREAN SARTU ZENEAN:

- a. Erromako Trataturia, 1956koa.
- b. Parisko Trataturia, 1990ekoa.
- c. Amsterdamgo Trataturia, 1999koa.
- d. Madrilgo Trataturia, 2002koa.

57. EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZETARAKO 4/2005 LEGEAREN ARABERA ZUZENEKO BEREIZKERIA DAGO:

- a. Pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta beste pertsona bat baino modu hobean tratatzen denean.
- b. Pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta –haurdun egonda edo ama izanda, esaterako– beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean.
- c. Pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin loturik ez dauden inguruabarrak direla-eta –haurdun egonda edo ama izanda, esaterako– beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

B EREDUA**58. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAREN IRISPIDE-ESKUBIDEAREN BARRUAN:**

- a. Informazioa erabilera orokorreko formatu batean emango zaio interesdunari, beti.
- b. Informazioa erabilera orokorreko formatu batean emango zaio interesdunari, noiz eta interesdunak ez duen eskatzen beste moduren batean bidaltzeko.
- c. Interesdunak eskabidea bitarteko elektronikoen bidez aurkezten duenean, informazioa erabilera orokorreko formatu elektronikoen baten bidez bidaliko da, noiz eta interesdunak ez duen eskatzen beste moduren batean bidaltzeko.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

59. BILBOKO UDALAK ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EGINDAKO V. PLANAREN ARABERA, BILBOKO GIZARTEAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO ESKU HARTZE EREMUEAN ARTEAN SARTZEN DIRA HONAKO PROGRAMA HAUEK: (ADIERAZI ZEIN EZ DEN ERANTZUN ZUZENA)

- a. Emakumeen kontrako indarkeria.
- b. Emakumeen ahalduntze soziala, ekonomikoa eta politikoa.
- c. Genero inaktuaren alde aurreko ebaluazioa.
- d. Erantzunkidetasun soziala.

60. BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAK DIO EZEN INDARKERIAK JASATEN DITUZTEN EDO JASAN DITUZTEN EMAKUMEEN ESKUBIDEA DELA ARRETA ETA BABESA JASOTZEA, GERTATUTAKOIA IKERTZEA, EDOTA HAIEN SUSPERTZEA ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA:

- a. Eta, horretarako, erakundeekin, gizarte zibilarrekin, gizarte-erakundeekin eta, bereziki, emakumeen eta feministen elkarte-mugimenduetarekin koordinatzeko eta haiekin guztiarekin lankidetzan aritzeko tresnak garatu beharko dira.
- b. Eta, horretarako, erakundeekin, gizarte- eta ekonomia-erakundeekin eta, bereziki, emakumeen eta feministen elkarte-mugimenduetarekin koordinatzeko eta haiekin guztiarekin lankidetzan aritzeko tresnak garatu beharko dira.
- c. Eta, horretarako, erakundeekin, erakunde zibilekin eta, bereziki, emakumeen auzo-elkarteekin lankidetzan aritzeko tresnak garatu beharko dira.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

61. BILBOKO UDALAK ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO EGINDAKO V. PLANAK HONAKO PROGRAMA HAUEK EZARTZEN DITU GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO BILBOKO UDALAREN JARDUERAN ETA HAREKIN LOTURA DUTEN EDO HAIEN MENDEKO DIREN ORGANISMO ETA ENTE PUBLIKOEN JARDUERAN:

- a. Plangintza kontablea eta estatistikoa.
- b. Aurrekontuen planifikazioa eta kudeaketa.
- c. Plangintza fiskala eta kudeaketa ekonomikoa.
- d. Inbertsioa eta errentagarritasun ekonomikoa planifikatzea.

B EREDUA**62. MARKATU ERANTZUN OKERRA:**

- a. Eliza ez da jotzen esleitzeko gaitutzat Sektore Publikoko Legearen xedeetarako.
- b. Alderdi politikoak botere esleitzzaileak dira Sektore Publikoko Legearen xedeetarako.
- c. Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duten mutiak ez dira botere esleitzzaileak.
- d. Foru aldundiak sektore publikoaren partetzat joko dira beren kontratazio jarduerari dagokionez.

63. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN SINATZEN DITUZTEN KONTRATUAK:

- a. Eskritura publikoz formalizatu behar dira beti.
- b. Eskritura publikoz formalizatu behar dira Administrazio publiko kontratatzaileak hala eskatzen baldin badu.
- c. Litzitazioari zehaztasunez egokitutako dokumentu administratiboan formalizatu behar dira, hitzarmen marko batean edo erosketa-sistema dinamiko baten barruko kontratu espezifikoetan oinarritutako kontratuen kasuan izan ezik.
- d. Hitzekoak izan daitezke.

64. PROZEDURA IREKIAN PROPOSAMENEN IREKIERA GEHIENENKO EPE HONEN BARRUAN EGIN BEHARKO DA:

- a. Hogei egunekoa.
- b. Hogeita hamar egunekoa.
- c. Hirurogei egunekoa.
- d. Laurogeita hamar egunekoa.

65. HORNIDURA-KONTRATUAK, BALIO ZENBATETSI HAU EDO HANDIAGOA DUTENAK, ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN PEAN EGONGO DIRA:

- a. 10.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.
- b. 140.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.
- c. 100.000 euroko balio zenbatetsia, beste administrazio batzuek adjudikatutako kontratuak badira.
- d. 50.000 euroko balio zenbatetsia, Estatuko Administrazio Orokorrak adjudikatutako kontratuak badira.

66. ZER DOKUMENTUREN BIDEZ EGIAZTA DAITEKE ESTATU BATUETAKO ETA KANADAKO NAZIOTASUNA DUTEN ENPRESARIEN JARDUTEKO AHALMENA?

- a. Haren zuzendarien pasaportearen bidez.
- b. Sortze-agiriaren bidez.
- c. Ezarrita dagoen Estatuko legeriarekin bat etorritik, jatorrizko erregistroan izena emanda.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

B EREDUA**67. OBREN EMAKIDA-KONTRATUAK EZIN IZANGO DIRA IZAN, LUZAPENAK BARNE, EPE HAU BAINO LUZEAGOAK:**

- a. Berrogei urte.
- b. Hogeita bost urte.
- c. Bost urte.
- d. Aukeretako bat ere ez da zuzena.

68. HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA EGIA?

- a. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- b. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- c. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat, bere langileen ausazko birbanaketaren bidez.
- d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

69. LANGILEEN BARNE PROMOZIOKO ETA PRESTAKUNTZAKO NEURRIAK ETA DERRIGORREZKO MUGIKORTASUNEKOAK GIZA BALIABIDEEN ORDENAZIO PLAN BATEAN HITZAR DAITEZKE?

- a. Ez.
- b. Bai.
- c. Bai, derrigorrezko mugikortasuna izan ezik.
- d. Bai, prestakuntza profesionala izan ezik.

70. APARTEKO MOTIBOENGATIK BALIABIDEEN ANTOLAMENDU PLANEK BIZILEKUAREN ALDAKETA ERAGITEN DUTENEAN...

- a. ...ez da izango inolako kalte-ordainik eragindako funtzionarioentzat.
- b. ...lehentasuna emango zaio lekualdaketen borondatezkotasunari.
- c. ...ez zaio lehentasunik emango lekualdaketen borondatezkotasunari.
- d. Giza baliabideen antolamendu Plan batek ezin dezake lekualdaketarik eragin.

B EREDUA**71. TOKI ADMINISTRAZIOAN DAUDEN LANPOSTUEN ZERRENDAN DERRIGORREZKOAK DIRA, KASU GUZTIETAN,**

- a. Postuen izena, mota eta hornidura sistema, dagozkien ordainsari osagarriak, hori betetzeko eskatzen diren baldintzak eta hizkuntza-eskakizuna, bai eta, hala egokitzen denean, haien nahitaezkotasunaren data ere.
- b. Postuen izena, mota eta hornidura sistema, dagozkien ordainsari osagarriak eta oinarrizkoak, eta hori betetzeko eskatzen diren baldintzak.
- c. Postuen izena, mota eta hornidura sistema, dagozkien ordainsari osagarriak, hori betetzeko eskatzen diren baldintzak eta lokalizazioa.
- d. Postuen izena, mota eta hornidura sistema, eta hori betetzeko eskatzen diren baldintzak.

72. ENPLEGU PLAN BATEK LANPOSTUAK KENTZEN BALDIN BADITU ETA HORREN ONDORIOZ FUNTZIONARIO BAT POSTU BERRI BATEAN BIRKOKATZEN BALDIN BADA, BIRKOKATZE HORREK POSTU BERRIAREKIKO ZER MOTATAKO ATXIKIPENA DAKAR?

- a. Behin-behinekoa.
- b. Baldintzatua.
- c. Behin betikoa.
- d. Alternatiboa.

73. GIZA BALIABIDEEN ARRAZIONALIZAZIO PROGRAMEK HONAKO HAUEI BURUZKO NEURRIAK EDUKI DITZAKETE:

- a. Lanaldi partzialeko zerbitzuen eskaintza.
- b. Antolaketa-egituren eta lanpostuen aldaketen berrikuspenak.
- c. Eragindako esparrutik kanpoko langileen sarrerak etetea, hala enplegu eskaintzatik nola mugikortasun prozesuetatik eratorritakoak.
- d. Aurreko guztiak zuzenak dira.

74. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, PLANTILLAK:

- a. Arrazionaltasun, ekonomia eta efizientzia printzipioen araberakoak izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek izaera orokorrez ezarritako mugak gainditu ditzakete.
- b. Arrazionaltasun, ekonomia eta fede onaren printzipioen araberakoak izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrez ezarritako mugak gainditu.
- c. Arrazionaltasun, ekonomia eta fede onaren printzipioen araberakoak izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek izaera orokorrez ezarritako mugak gainditu ditzakete.
- d. Arrazionaltasun, ekonomia eta efizientzia printzipioen araberakoak izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrez ezarritako mugak gainditu.

B EREDUA**75. ARAUBIDE ERKIDeko UDALERRIETAN, KUDEAKETA EKONOMIKOFINANTZARIOAREN ZEIN AURREKONTU-KUDEAKETAREN KONTROLA ETA BARNE FISKALIZAZIOA, ETA KONTABILITATEA, DIRUZAINZTA ETA DIRUBILKETA:**

- a. Hautazko funtzio publikoak dira.
- b. Nahitaezko funtzio publikoak dira, 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan izan ezik.
- c. Nahitaezko funtzio publikoak dira.
- d. Nahitaezko funtzio publikoak dira, Udal Araudi Organikoak hala ezartzen baldin badu soilik.

76. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, TOKI-KORPORAZIOENTZAT LANGILEEN ERREGISTROAK ERATZEA:

- a. Borondatezkoa da.
- b. Nahitaezkoa da.
- c. Nahitaezkoa da Biztanleria Handiko Udalerrientzat soilik.
- d. Nahitaezkoa da 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrientzat soilik.

77. IDAZKARITZAKO FUNTZIO PUBLIKOA:

- a. Hautazko funtzioa da, tokiko korporazio guztietan.
- b. Hautazko funtzioa da, 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan.
- c. Nahitaezko funtzioa da, tokiko korporazio guztietan.
- d. Nahitaezko funtzioa da tokiko korporazio guztietan, Udal Araudi Organikoak hala ezartzen baldin badu soilik.

78. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ADINGABE BATEN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA BERE ADOSTASUNEAN OINARRITU AHAL IZANGO DA, BALDIN ETA ADIN HONETATIK GORAKOA BADA:

- a. 13 urte.
- b. 16 urte.
- c. 14 urte.
- d. 18 urte.

79. 9/2017 LEGEAREN ARABERA (AZAROAREN 8KOA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKOA), KONTRATU TXIKIEN IRAUPENA EZIN DA IZAN EPE HAU BAINO HANDIAGOA:

- a. Sei hilabete, luzatzeko aukerarekin.
- b. Urtebete, luzatzeko aukerarekin.
- c. Sei hilabete, luzatzeko aukerarik gabe.
- d. Urtebete, luzatzeko aukerarik gabe.

B EREDUA**80. UDALERRIETAN, LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEKO ESKUDUNTZA DUEN ORGANOA DA:**

- a. Udalbatza, kasu guztietan.
- b. Udalbatza Araudi erkideko udalerrietan eta Tokiko Gobernu Batzarra Biztanleria Handiko Udalerrietan.
- c. Tokiko Gobernu Batzarra, kasu guztietan.
- d. Tokiko Gobernu Batzarra Araudi erkideko udalerrietan eta Udalbatza Biztanleria Handiko Udalerrietan.

B EREDUA**ERRESERBA GALDERAK****81. NAZIOAREN SUBIRANOTASUNA:**

- a. Adinez nagusiak diren herritarretan datza.
- b. Kongresuan eta Senatuan datza.
- c. Herrian datza.
- d. Erregean datza.

82. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, ESKUMEN HAUETATIK ZEIN DA ESKUMEN ESKLUSIBO EZ-PARTEKATUA?

- a. Autogobernuko erakundeen antolamendua.
- b. Autonomia Erkidegoaren titulartasunekoak diren jabego publikoko ondasunak eta ondare ondasunak.
- c. Barne uretako arrantza.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

83. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE KOMUNEN EGOITZA:

- a. Lege organiko baten bidez finkatuko da.
- b. Lege arrunt baten bidez finkatuko da.
- c. Eusko Legebiltzarrak emandako lege baten bidez finkatuko da.
- d. Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez finkatuko da.

84. KONTZEJU IREKIKO ARAUBIDE BEREZIA DUTE:

- a. Gobernatzeko eta administratzeko araubide berezi horretaz betidanik eta hala nahita baliatu diren udalerriek.
- b. 200 biztanle baino gutxiagoko udalerriek.
- c. 300 biztanle baino gutxiagoko udalerriek.
- d. 500 biztanle baino gutxiagoko udalerriek.

85. BILBOKO UDALEKO ARAUDI ORGANIKOAK IZAERA ORGANIKOA DU, ETA HONEN BABESPEAN EZARTZEN DA:

- a. Konstituzioan, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan eta Lurralde Historikoen Legean ezarritakoaren babespean.
- b. Konstituzioan, Autonomia Estatutuan, tokiko araubidearen oinarritzko legerian eta Lurralde Historikoen Legean ezarritakoaren babespean.
- c. Tokiko araubidearen oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean ezarritakoaren babespean.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

B EREDUA**86. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIOISILTASUNAREN BIDEZ GERTATUTAKO ADMINISTRAZIO-EGINTZAK BALIARAZI AHALKO DIRA:**

- a. Espedientearen administrazio instrukzio-egilearen aurrean soilik.
- b. Administrazioaren aurrean, nola edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribaturen aurrean.
- c. Soilik pertsona fisikoen aurrean.
- d. Soilik pertsona fisiko edo juridiko publikoen aurrean.

87. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAK EZARTZEN DU ERREGELAMENDUZ PROZEDURAREN ZENBAIT BEREZITASUN EZARRI AHAL IZANGO DIRELA. ZERI BURUZKOAK IZAN DAITEZKE?

- a. Organo eskudunak.
- b. Gaiagatik zehazki dagokion prozeduraren epeak.
- c. Hasteko eta amaitzeko moduak.
- d. Aurreko horiek denak, eta argitaratzeko modua eta eskatu beharreko txostenak.

88. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ERREGELAMENDUKO XEDAPEN BATEAN EZARRITAKO A URRATZEN DUTEN ADMINISTRAZIO EBAZPENAK DIRA:

- a. Baliozkoak.
- b. Deusezak.
- c. Deuseztagarriak.
- d. Baliozkotu daitezkeenak.

89. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEAREN 35. ARTIKULUAK XEDATZEN DUENEZ (39/2015 LEGEA), HONAKO HAUEK ARRAZOITU EGIN BEHARKO DIRA, EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK LABURKI AIPATUZ:

- a. Xedapenak edo administrazio-egintzak ofizioz berrikusteko prozedurak ebazten dituzten egintzak.
- b. Administrazio-errekurtsoak ebazten dituzten egintzak.
- c. Arbitraje-prozedurak ebazten dituzten egintzak.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

90. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 40. ARTIKULUAREN ARABERA, INTERESDUNEI JAKINARAZIKO ZAIZKIE:

- a. Beren eskubide eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazioegintzak.
- b. Beren oinarrizko eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta izapide-egintzak.
- c. Beren oinarrizko eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak eta administrazio-egintzak.
- d. Beren eskubideak eta interesak ukitzen dituzten ebazpenak.

B EREDUA**91. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA:**

- a. Interesdunak eskubidea izango du bere adostasuna edozein unetan kentzeko, adostasuna eman eta hurrengo egunetik aurrera.
- b. Adostasuna kentzeak ez du eraginik izango kendu aurretik emandako adostasunean oinarritutako tratamenduaren legitimitatean, non eta adostasun hori osasunari edo ideologiari lotutako datuei buruzkoa ez bada.
- c. Tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritzen denean, arduradunak gai izan behar du frogatzeko interesdunak oniritzia eman ziola bere datu pertsonalak tratatzeari.
- d. Adostasuna kentzea ematea bezain erraza izango da, fitxategiaren arduradunak eta interesdunak estatu kide desberdinetan daudenean helbideratuta izan ezik.

92. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OINARRIZKO LEGEA EUSKO LEGEBILTZARRAK ONETSI ZUEN ETA INDARREAN SARTU ZEN:

- a. Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.
- b. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.
- c. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.
- d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

93. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEKO LAN-IZAERAKO XEDEPENEK IZAERA HAU DUTE:

- a. Galarazpen arauak.
- b. Ordezkaritza arauak.
- c. Jarduera arauak.
- d. Aginduzko zuzenbide gutxieneko eta xedaezinak.

94. GIZA BALIABIDEEN BEHARRIZANAK DAUDENEAN, ETA, HORRETARAKO, AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA EGONDA, LANGILE BERRIAK SARTZEA BEHARREZKOA DENEAN HAU EGIN BEHAR DA:

- a. Enplegu Publikorako Eskaintza edo langile-beharrizanak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili.
- b. Enplegu Publikorako Eskaintza.
- c. Lanpostuen zerrenda.
- d. Iragarkia EBEO Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean.

95. AUKERATU ERANTZUN ZUZENA:

- a. Estatuko Administrazioari dagokio ezartzea lege maila duen arau bidez Toki Administrazioari funtzionarioen aukeraketa eta prestakuntza prozeduran aintzat hartu beharreko oinarritzko arauak eta gutxieneko programak.
- b. Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio ezartzea lege maila duen arau bidez Toki Administrazioari funtzionarioen aukeraketa eta prestakuntza prozeduran aintzat hartu beharreko oinarritzko arauak eta gutxieneko programak.
- c. Toki Administrazio bakoitzari dagokio erregelamenduz ezartzea bere funtzionarioen aukeraketa eta prestakuntza prozeduran aintzat hartu beharreko oinarritzko arauak eta gutxieneko programak.
- d. Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

B

ERANTZUN ORRIA HOJA DE RESPUESTAS

Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

1. ABIZENA / 1º APELLIDO	
BILBAO EKINTZA	
2. ABIZENA / 2º APELLIDO	
TÉCNICO PROMOCIÓN EMPRESARIAL	
IZENA / NOMBRE	NAN / DNI
PLANTILLA	
DATA / FECHA	KIDEGO EDU LANPOSTUA / CUERPO O PLAZA

NAN / DNI			
0	0	0	0
1	1	1	1
2	2	2	2
3	3	3	3
4	4	4	4
5	5	5	5
6	6	6	6
7	7	7	7
8	8	8	8
9	9	9	9

SINADURA / FIRMA

Sinatu laukitik atera gabe / Firmar sin salir del cuadro

MARKATZE ARSIBIDEAK
INSTRUCCIONES DE MARCADO



hona ez markatu
asi no marque

• = ● X /

honela markatu
marque asi

Azterketa eredu / Modelo de examen

A O B O

1	EZEZT.	A	B	C	D
2	ANULAR	A	B	C	D
3	EZEZT.	A	B	C	D
4	ANULAR	A	B	C	D
5	EZEZT.	A	B	C	D
6	ANULAR	A	B	C	D
7	EZEZT.	A	B	C	D
8	ANULAR	A	B	C	D
9	EZEZT.	A	B	C	D
10	ANULAR	A	B	C	D
11	EZEZT.	A	B	C	D
12	ANULAR	A	B	C	D
13	EZEZT.	A	B	C	D
14	ANULAR	A	B	C	D
15	EZEZT.	A	B	C	D
16	ANULAR	A	B	C	D
17	EZEZT.	A	B	C	D
18	ANULAR	A	B	C	D
19	EZEZT.	A	B	C	D
20	ANULAR	A	B	C	D
21	EZEZT.	A	B	C	D
22	ANULAR	A	B	C	D
23	EZEZT.	A	B	C	D
24	ANULAR	A	B	C	D
25	EZEZT.	A	B	C	D
26	ANULAR	A	B	C	D
27	EZEZT.	A	B	C	D
28	ANULAR	A	B	C	D
29	EZEZT.	A	B	C	D
30	ANULAR	A	B	C	D
31	EZEZT.	A	B	C	D
32	ANULAR	A	B	C	D
33	EZEZT.	A	B	C	D
34	ANULAR	A	B	C	D
35	EZEZT.	A	B	C	D
36	ANULAR	A	B	C	D
37	EZEZT.	A	B	C	D
38	ANULAR	A	B	C	D
39	EZEZT.	A	B	C	D
40	ANULAR	A	B	C	D
41	EZEZT.	A	B	C	D
42	ANULAR	A	B	C	D
43	EZEZT.	A	B	C	D
44	ANULAR	A	B	C	D
45	EZEZT.	A	B	C	D
46	ANULAR	A	B	C	D
47	EZEZT.	A	B	C	D
48	ANULAR	A	B	C	D
49	EZEZT.	A	B	C	D
50	ANULAR	A	B	C	D
51	EZEZT.	A	B	C	D
52	ANULAR	A	B	C	D
53	EZEZT.	A	B	C	D
54	ANULAR	A	B	C	D
55	EZEZT.	A	B	C	D
56	ANULAR	A	B	C	D
57	EZEZT.	A	B	C	D
58	ANULAR	A	B	C	D
59	EZEZT.	A	B	C	D
60	ANULAR	A	B	C	D
61	EZEZT.	A	B	C	D
62	ANULAR	A	B	C	D
63	EZEZT.	A	B	C	D
64	ANULAR	A	B	C	D
65	EZEZT.	A	B	C	D
66	ANULAR	A	B	C	D
67	EZEZT.	A	B	C	D
68	ANULAR	A	B	C	D
69	EZEZT.	A	B	C	D
70	ANULAR	A	B	C	D
71	EZEZT.	A	B	C	D
72	ANULAR	A	B	C	D
73	EZEZT.	A	B	C	D
74	ANULAR	A	B	C	D
75	EZEZT.	A	B	C	D
76	ANULAR	A	B	C	D
77	EZEZT.	A	B	C	D
78	ANULAR	A	B	C	D
79	EZEZT.	A	B	C	D
80	ANULAR	A	B	C	D
81	EZEZT.	A	B	C	D
82	ANULAR	A	B	C	D
83	EZEZT.	A	B	C	D
84	ANULAR	A	B	C	D
85	EZEZT.	A	B	C	D
86	ANULAR	A	B	C	D
87	EZEZT.	A	B	C	D
88	ANULAR	A	B	C	D
89	EZEZT.	A	B	C	D
90	ANULAR	A	B	C	D
91	EZEZT.	A	B	C	D
92	ANULAR	A	B	C	D
93	EZEZT.	A	B	C	D
94	ANULAR	A	B	C	D
95	EZEZT.	A	B	C	D
96	ANULAR	A	B	C	D
97	EZEZT.	A	B	C	D
98	ANULAR	A	B	C	D
99	EZEZT.	A	B	C	D
100	ANULAR	A	B	C	D